

EÜSKARAREN EBALÜAKETA

Evaluation des acquis en langue basque

HIRUGERREN ZIKLOAN

CYCLE 3

2010 – 2011 ikasturtea

ARIKETEN ZERRENDA	AHOZKO HIZKUNTZA	IDATZIZKO HIZKUNTZA		
ULERTÜ	1 Ixtorio baten elementuak ezagütü..... /20	10'	3 Hiztegia erabili..... /10 4 Titülü bat haütatü..... /5 5 Xehetarzunak ezagütü /10 6 Argibideak eman..... /5 7 Leienda eta irudia parekatü..... /5 8 Arapostüa eta galtoa parekatü.. /5 9 Sinonimoak eta kontrakoak..... / 5 10 Testu püzzlea..... /10 11 Irudi zekuentzialen testu egokia haütatü..... /5 /20	15' 10' 10' 2' 3' 3' 5' 5' 5' /60
EKOITZI	2 Kontatü..... /50	5'	12 Ixtorioa idatzi..... /30 13 Diktaketa..... /10 14 Erakusleak – Posesiboak..... /10 15 Aditza..... /15 16 Deklinabidea..... /10 17 Joskera..... /15 /50	30' 10' 8' 10' 10' 15'

Saioen antolaketa : Lehen egunean : 1., 3., 9. eta 13. ariketak

Bigarren egunean : 4., 5., 6. eta 7. ariketak

Hirugarren egunean : 8., 10., 11. eta 12. ariketak

Laugarren egunean : 14., 15., 16. eta 17. ariketak

2. ariketa gelako ohizko jardueren denboran eraman daiteke.

	Socle Commun 2ème palier Compétence 1	CECRL* Niveau A 2	Programmes 2008	Items
Comprendre	<i>Comprendre des mots nouveaux et les utiliser à bon escient Dégager le thème d'un texte Utiliser ses connaissances pour réfléchir sur un texte</i>	Comprendre à l'oral: Etre capable de comprendre une intervention brève, si elle est claire et simple: récit	Ecouter, prendre en compte ce qui a été dit Déduire l'implicite d'un texte.	Ex.1
	Savoir utiliser un dictionnaire	Comprendre des expressions et un vocabulaire très fréquents	Utiliser avec aisance un dictionnaire.	Ex. 3
	Lire avec aisance (à haute voix, silencieusement) un texte Lire seul et comprendre un énoncé une consigne Dégager le thème d'un texte Utiliser ses connaissances pour réfléchir sur un texte	Lire et comprendre des textes courts et très simples	Repérer dans un texte des informations explicites	Ex. 4 Ex. 5 Ex. 6 Ex. 10, 11
	Lire seul et comprendre un énoncé, une consigne	Trouver une information particulière prévisible dans des documents courants		Ex. 7 Ex. 8
	Comprendre des mots nouveaux et les utiliser à bon escient	Comprendre des expressions et un vocabulaire très fréquents	Utiliser des synonymes et des mots de sens contraire dans les activités d'expression orale et écrite	Ex. 9
		Trouver une information particulière prévisible dans des documents courants	S'appuyer sur les mots de liaison et les expressions qui marquent les relations logiques pour comprendre avec précision l'enchaînement d'une action ou d'un raisonnement. Repérer dans un texte des informations explicites	Ex. 10

Parler	S'exprimer à l'oral comme à l'écrit dans un vocabulaire approprié et précis	<i>Etre capable de s'exprimer de manière simple sur des sujets variés: Raconter un évènement.</i>	<i>Faire un récit structuré en s'exprimant dans un langage correct et approprié.</i>	Ex. 2
Ecrire	S'exprimer à l'oral comme à l'écrit dans un vocabulaire approprié et précis Rédiger un texte d'une dizaine de ligne en utilisant ses connaissances en vocabulaire et en grammaire Orthographier correctement un texte simple de dix lignes - lors de sa rédaction ou de sa dictée - en se référant aux règles connues d'orthographe et de grammaire ainsi qu'à la connaissance du vocabulaire	Ecrire des notes et des messages simples et courts	Rédiger différents types de texte d'au moins deux paragraphes en veillant à leur cohérence, en évitant les répétitions, et en respectant les contraintes syntaxiques et orthographiques ainsi que la ponctuation.	Ex. 12
	Orthographier correctement un texte simple de dix lignes - lors de sa rédaction ou de sa dictée - en se référant aux règles connues d'orthographe et de grammaire ainsi qu'à la connaissance du vocabulaire	Ecrire des notes et des messages simples et courts	Ecrire sans erreur sous la dictée un texte d'au moins dix lignes en mobilisant les connaissances acquises.	Ex. 13
	Utiliser ses connaissances pour réfléchir sur un texte (mieux le comprendre ou mieux l'écrire) Orthographier correctement un texte simple de dix lignes - lors de sa rédaction ou de sa dictée - en se référant aux règles connues d'orthographe et de grammaire ainsi qu'à la connaissance du vocabulaire	Ecrire des notes et des messages simples et courts	Annexe 2 des Programmes de Langues Régionales (Basque) : La syntaxe Les déclinaisons Le verbe	Ex. 14 Ex. 15 Ex. 16 Ex. 17

* CECRL : Cadre Européen Commun de Référence pour les Langues (Conseil de l'Europe 2001)

COMPRENDRE	Socle Commun, 2^{ème} palier, Compétence 1 : Comprendre des mots nouveaux et les utiliser à bon escient. Dégager le thème d'un texte. Utiliser ses connaissances pour réfléchir sur un texte.
	CECRL, Niveau A 2 : Comprendre à l'oral: Etre capable de comprendre une intervention brève, si elle est claire et simple: récit.
	Programmes 2008 : Ecouter, prendre en compte ce qui a été dit. Déduire l'implicite d'un texte.
	AHOZKO HIZKUNTZA ULERTÜ
	1 - Ixtorio baten elementuak ezagütyü
Ariketaren erabil moldea	Haur multzoa
Konpetentzia	Ixtorio baten elementuak ezagütyü
Edükina	Erakasleak aldi batez irakurten dü, euskalkier egokitüz. Fitxa emaiten die. Galtoak talde handian irakurten dira. Irakasleak testua irakurten dü beste behin. Ber denboran ikasleek kürütxe batez galtoer ihardesten düe. Bete ondoan 5 minüta üzten deiegü haurrer QCM-a berriz irakurteko.
Ixtorioa	Hixeria eta saia
Agindua	Ikasleek irakurten düe. Ondotik erakasleak berriz irakurten dü. <i>"Testu hau entzün eta galtoer arrapostü eman kürütxe bat ezarriz".</i>
Iraüpena	10 minüta

HAXERIA ETA SAIA

Elurra eginen züala erran zuen. Orduan gizonek egurra bildü, etxearen sartu eta sua piztu, egin lezan elurra!!! Kabaleek aspalditik bazakien elurra eginen züala. Orduan bakotxa sartu zen bere xiloan, bere xokoan, bere habia bero eta goxoan. Egin beza elurra!!! Salbu haxeri zahar hau! Honek, korpitzatua xiloan eta bürüa kanpoan züan eta hortxe zegoen lasai-lasai gaüa ürrentzen bezala, erdi ametsetan goiz hartan. Momentu batez bere südür gainean holako gaüza hotz bat borogatzen du. Begiak zabal eta ikusi zelütik erorten gaüza xuri elibat.

- Zer ote da hau? Bena zer ote da?

Haxeri honek ez du behin ere holakorik ikusi!!! Eta üngürüa xuri, eta geroago eta xuriago bilakatzen da. Orduan, haxeria xilotik elki eta üngürü üngürü, oihuz eta orroaz entzuten da: „ekuratzeko gaüza hori!“ Orduan agertzen zaio sai bat! Builtre zahar bat!

- Zer agitzen da haxeritxo?
- Agitzen düzi nik ez dakidala zer diren zelütik erorten diren gaüza horik!
- Zük ez dakizü zer diren horik ? A! Haxeria! Zelütik erorten zaizkün gaüza horik, lümak dütüzü. Lümak!
- Lümak? Lümak?
- Bai lümak! Zelüan besta handi baten prestatzen ari dütüzü eta oiloak, oilaxkoak, ahaiteak eta antzerak lümatzen ditizü eta horik igorten dizküze. Lümak!!
- Aa!!! Lümak!!

Hebentik ikusten dütüzü haxeriaren gogoan igaraiten diren irudiak eta haxeri hori zelüari so da, heia oideien artetik zerbait ikusiko ote duan, oilaxko bat, ahaite bat, edo.... Saia ohartu da gaüza hartaz eta erran deio:

- Soizü, badakit igan nahi düzüla. Soizü ene bützana eta har ezazü zure hortzekin ene bützana eta eramanen zütüt gain hartara!

Zale egin du haxeri honek haütüa! Ahoa zabal eta hartu builtrearen bützana! Eta honek emeki-emeki abiada hartu du. Eta igan da zelüan, geroago eta gorago, geroago eta gorago. Üngürüka, üngürüka, goiti, goiti, igan, goiti, hor eta gaintian hantxe zelüko ixiltarzünean entzuten da saia haxeriari galtatzen:

- E!! Haxeria!!! Zer diozü? Nola zira?
Arrapostürik ez!
- E! Nik galto bat egin deizüt eta arrapostü zerbait nahi nikezü! Zer diozü haxeria?
- Ixiltarzünak ihardesten deio.
- Bueno, arrapostürik ez baldin bada, berriz eraitsiko güütüzü. Hori nahi düzü? Eraistea! E? Hori nahi düzü?
- EZ!!!!

Saiaren bützana ützirik, haxeria lau patak zabal-zabala erorten da eta pean ikusten dütü harriak, txüt, zelüari so. Orduan haxeri honek, oihuz, orroaz, erraiten die:

- Abisa!! Zoazte hortik erorten beiniz!

Bena harriak ez dira igitu eta haxeria harrien gaina erori da, ezkratxtü eta bertan hil da!!!!

Testu hau entzün eta galtoer arrapostü eman kürütxe bat ezarriz.

Zergatik kabale güziak sartürik dira etxerat?

- Larrazkena delako
Lotsa direlako
Negüa delako

Nola da haxeria bere xiloan?

- Bürüa kanpoan, korpitza barnean
Büztana kanpoan, korpitza barnean
Bürüa barnean, korpitza kanpoan

Zer ikusi dü zelütik erorten?

- Ostoak
Elurra
Harriak

Zer agertzen zaio haxeriari?

- Sai bat
Gatü bat
Sagü bat

Zer prestatzen ari dira zelüan?

- Kontzertü bat
Futbol partida bat
Besta handi bat

Nola haxeriak hartzen dü saiaren büztana?

- Hortzkin
Esküekin
Besoekin

Zer galtatzen deio saiak haxeriari zelüan direnean?

- Nola zaude?
Norat ari gira?
Zer tenore da?

Zertako haxeriak ez dü arrapostürik emaiten?

- Kexü delako
Ez düalako nahi
Ez erorteko

Pean zer ikusten dü haxeriak?

- Harriak
Herriak
Ibaiak


Zer agitzen zaio haxeriari ürrentzean?

- Joaiten da
Hiltzen da
Dantzan hasten da








Izena:.....

PARLER	Socle Commun, 2^{ème} palier, Compétence 1 : S'exprimer à l'oral comme à l'écrit dans un vocabulaire approprié et précis.
	CECRL, Niveau A 2 : Etre capable de s'exprimer de manière simple sur des sujets variés: Raconter un évènement.
	Programmes 2008 : Faire un récit structuré en s'exprimant dans un langage correct et approprié.
AHOZKO HIZKUNTZA EKOIZTZI	2 – Kontatü /50
Ariketaren erabil moldea	5 minüta ützi haurrer prestatzeko. Ekoizpena grabatüa, ondotik notatzeko kriterioen arabera.
Edükina	Haxeria Piknika Proposatürik diren bi marrazki zerrendatarik bat: haxeria eta piknika aldzikatüz.
Agindua	Ikasleek irakurten düe. Ondotik erakasleak berriz irakurten dü. <i>"8 irudi horien lagüntzarekin ixtorioa konta ezazü, ahal bezain bat xehetarzünegin".</i>
Iraüpena	5 minüta

2 – KONDATU



"Studia" Argitalakos



COMPRENDRE	Socle Commun, 2^{ème} palier, Compétence 1 : Savoir utiliser un dictionnaire.
	CECRL, Niveau A 2 : Comprendre des expressions et un vocabulaire très fréquents.
	Programmes 2008 : Utiliser avec aisance un dictionnaire.
IDATZIZKO HIZKUNTZA ULERTÜ	3- Hiztegia erabili / 10
Ariketaren erabil moldea	Haur multzoa
Edükina	Lau ützülpene frantsesez eta lau euskaraz hiztegietan txerkatü.
Agindua	Ikasleek irakurten due. Ondotik erakasleak berriz irakurten dü. <i>“Hitz horien ützülpene hiztegian txerka ezazü.”</i> Bainü (bain), lotsatü (avoir peur), bizarre-nabela (couteau à barbe, rasoir), zikinka (saleté, cochonnerie: 2 püntü), ongle (azüzkülü, azkazal), brosse (esküila), se marier (ezkontü: 2 püntü), parfumer (lürrindü) Hoinarrizko hiztegia: Elhuyar HIZTEGIA (urdina)
Iraüpena	15 minüta

3- Hitz horien ützülpene hiztegian txerka ezazü.

<u>Zikinkeriaren</u> kapitaina
<u>Bainüa</u> hartzen düzü.
<u>Lotsatü</u> niz.
<u>Bizar-nabela</u> galdü dü.
<u>Parfumer</u>
<u>Ongle</u>
<u>Brosse</u>
<u>Se marier</u>

COMPRENDRE	Socle Commun, 2^{ème} palier, Compétence 1 : Lire avec aisance (à haute voix, silencieusement) un texte. Lire seul et comprendre un énoncé une consigne. Dégager le thème d'un texte. Utiliser ses connaissances pour réfléchir sur un texte.	
	CECRL, Niveau A 2 : Lire et comprendre des textes courts et très simples.	
	Programmes 2008 : Repérer dans un texte des informations explicites.	
	IDATZIZKO HIZKUNTZA ULERTÜ	
	4- Testu baten titülüä häütatü	/5
Ariketaren erabil moldea	Haur multzoa	
Edükina	Ikasleak testua irakurten dü. Titülüä behar dü häütatü: Zikinkeriaren ministroa Zerrien erregea Zerriaren familia Zerriak hogeitahamar urte betatzen dü	
Agindua	Erakasleak ez du irakurten: "Lau titülü hauetarik, zoin häütatüko zünüke?"	
Iraüpena	10 minüta	

4- *Lau titülü hauetarik, zoin häütatüko zünüke?*

- Zikinkeriaren ministroa
- Zerrien erregea

- Zerriaren familia
- Zerriak hogeitahamar urte betatzen dü

Bazen behin errege bat, Zerrien erregea deitzen züena, eta haren ministroa aldiz, Zikinkeriaren ministroa...

Bazüan hogeitamar urte errege hori ez zela xahatzen eta bainürik, pentsa... ez züan ihoiz ere hartü.

Gaixoa, ez zen haren ogena, hurra ez züan batere maite, oroz gainetik hur hotza.

Biloa ere ez züan motzarazten, are gütiago azüzkülüak. Bena, ez zen etxit haren ogena, haixturrek lotserazten beitzüen, bereziki haixtür zorrotzek .

Eta ez züanizarrik egiten, bena ez zen oraino ere haren ogena, bizar-nabelek lotsarazten beitzüen, oroz gainetik hüilanetik mozten düen bizar-nabelek.

Hortzentako, ez züan ihoiz ere hortz esküilarik erabili. Heltü bada min egiten zeioen hortz esküilek?...

Eta, hoztü lotsaz, zankoetan galtzak jauntsirik lo egiten züan.

Beharrik halere, ürrin hona ezarten beitzüan. Goiz oroz, arrosa hurrez lürrintzen zen ... pintak eta pintak hedatüz aldi bakoitx.

Hola Erregeak arrosa ürrina bazüan!...

Eta ez ahatz, bazen hogeitahamar urte hola zela...

Goiz batez, Zikinkeriaren ministroa jin zaio erranez:

- Jaun Errege, ez düzü zure segida segürtatzeko haurrik, arren erresumarentako erregina baten beharra badüğü eta, behar zünüke...xahatü... o! Parka, ezkontü!...
- Egia düzü, arrazoi düzü, erregina eta printze txipirik gabeko erresuma, ez düzü erresuma bat. Ezkontüko nüzü !...

"Kometa" aldizkaria Idazle: Christine Molina

*bizar-labana = bizar nabela

*lürrindü = ürrin hona eman

*azüzkülü = azkazal

5- Testuan argibideak margo etzazu erakusteko:

- Hurra ez düala maite. (*Urdinez*)
- Zergatik düan ürrin hona (*Berdez*)
- Zer den ministroaren kontseilüa (*Hoiliz*)

COMPRENDRE	Socle Commun, 2^{ème} palier, Compétence 1 : Lire avec aisance (à haute voix, silencieusement) un texte. Lire seul et comprendre un énoncé une consigne. Dégager le thème d'un texte. Utiliser ses connaissances pour réfléchir sur un texte.
	CECRL, Niveau A 2 : Lire et comprendre des textes courts et très simples.
	Programmes 2008 : Repérer dans un texte des informations explicites.
	IDATZIZKO HIZKUNTZA ULERTÜ 5- Xehetarzünak ezagüütü /10
Ariketaren erabil moldea	Haur multzoa
Edükina	Ikasleek “Zerrien erregea” testua irakurten düe. Galtatürük dena margotü behar düe Argibideak margo etzazü erakusteko: Hurra ez düala maite: urdinez Nolaz düan ürrin hona: berdez Ministroaren kontseilüa: hoiliz
Agindua (errana)	Erakasleak ez dü irakurten: “Testuan argibideak margo etzazü” <i>Non erranik da ‘hurra ez düala maite? Urdinez margo ezazü. (Hurra ez züan batere maite, oroz gainetik, hur hotza)</i> <i>Non erranik da nolaz düan ürrin hona? Berdez margo ezazü (Beharrak....bakoitxean).</i> <i>Non da ministroaren kontseilüa? (behar zünüke xahatü) Hoiliz margo ezazü.</i>
Iraüpena	10 minüta

COMPRENDRE	Socle Commun, 2^{ème} palier, Compétence 1 : Lire avec aisance (à haute voix, silencieusement) un texte. Lire seul et comprendre un énoncé une consigne. Dégager le thème d'un texte. Utiliser ses connaissances pour réfléchir sur un texte.
	CECRL, Niveau A 2 : Lire et comprendre des textes courts et très simples.
	Programmes 2008 : Repérer dans un texte des informations explicites.
	IDATZIZKO HIZKUNTZA ULERTÜ
	6- Argibideak eman /5
Ariketaren erabil moldea	Haur multzoa
Edükina	Ikasleek "Zerrien erregea" testua irakurten düe. Argibideak eman behar dütüe arrapostü züzena üngüratütz. Erregea üsü xahatzen zena? Bai Ez Erregeak pikarrai lo egiten züana? Bai Ez Erregeak maite züan: hur hotza - ürrin hona - haixturrak Erregeak ürrin hona ezarten züan: hanitx - biloan - begitaranean Egoera horrek iraün züan: 20 urtez - 10 urtez - 30 urtez
Agindua (errana)	Erakasleak ez dü irakurten: Arrapostü züzenak üngüra etzazü.“
Iraüpena	2 minüta

6 – Argibideak eman

Arrapostü züzenak üngüra etzazü.

Erregea üsü xahatzen zena? Bai Ez

Erregeak pikarrai lo egiten züana? Bai Ez

Erregeak maite züan: hur hotza - ürrin ona - haixturrak

Erregeak ürrin hona ezarten züan: hanitx - biloan - begitaranean





Egoera horrek iraün züan: 20 urtez - 10 urtez - 30 urtez

Izena:.....

COMPRENDRE	Socle Commun, 2^{ème} palier, Compétence 1 : Lire seul et comprendre un énoncé, une consigne.
	CECRL, Niveau A 2 : Trouver une information particulière prévisible dans des documents courants.
IDATZIZKO HIZKUNTZA ULERTÜ	7- Leienda eta irudia parekatü /5
Ariketaren erabil moldea	Haur multzoa
Edükina	<p>Ikasleek badüe hamar esaldi (irudien leiendak) eta 5 irudi. Marrazki bakoitxean zonbaki egokia idatzi behar da leienden arabera.</p> <p>Aüharitako arraultze moleta eginen dügü. Ene trikota berria handiegi da. Hanitx jente bada etxeen. Ene galtzak llabürregi dira. Kasü zure bizkarrari gaüza pezüen altxatzeko! Leihotik erori niz. Maite düt garbiketa egitea. Amaia hoztü da. Ene bizikleta hautserik da. Borta zabal otoi!</p>
Agindua	Erakasleak ez dü irakurten: “Marrazki bakoitxean zonbaki egokia idatzi behar düyü esaldien eta marrazkien parekatzeo. KASÜ!!! Marrazki beno esaldi haboro badüzü!!!”
Iraüpena	3 minüta

7- Marrazki bakoitzean zonbaki egokia idatzi behar düzü esaldien eta marrazkien parekatzeko. KASÜ!!! Marrazki beno esaldi haboro badüzü!!!”

1. Arraultzeak hautse dira.
2. Ene trikota berria handiegi da.
3. Jente hanitx bada etxe an.
4. Ene galtzak llabürregi dira.
5. Pezüegi da! Ezin düt altxatu!
6. Leihotik erori niz.
7. Maite düt garbiketa egitea.
8. Amaia marranta da, bokanesa hartü dü.
9. Ene bizikleta hautserik da.
10. Borta zabal otoi!



Izena:.....

COMPRENDRE	Socle Commun, 2^{ème} palier, Compétence 1 : Lire seul et comprendre un énoncé, une consigne.
	CECRL, Niveau A 2 : Trouver une information particulière prévisible dans des documents courants.
IDATZIZKO HIZKUNTZA ULERTÜ	8- Arrapostüa eta galtoa parekatü /5
Ariketaren erabil moldea	Haur multzoa
Edükina	<p>Ikasleek badüe 5 galto eta 10 arrapostü. Parekatü behar dütüe</p> <p>Zer jaten düe behiek? Nola eraikitzen dira etxeak? Zoin hilabetetan da Egüberri? Non atzamaiten dira arrainak? Zonbat iraüten dü urte batek?</p> <p>Hogeitahamar egün. Abentüan. Eznea eta aragia. Ibaietan eta itsasoan. Negüan. Hirurehun eta hirurogeita bost egün. Belarra. Kola eta paperarekin Aragitegian. Harriz, zimentüz eta zurrez.</p>
Agindua	Erakasleak ez dü irakurten: “ <i>Galto bakotxean zonbaki egokia idatzi behar düzü galtoa eta arrapostüa parekatzeko. KASÜ!!! Arrapostü haboro badüzü galto beno!!!</i> ”
Iraüpena	3 minüta

8- Galto bakoitzean zonbaki egokia idatzi behar düzü galtoaren eta arrapostüaren parekatzeko. KASÜ!!! Galto beno arrapostü haboro bada!!!”

- A. Zer jaten dü behiek?
- B. Zerez eginik dira etxeak?
- C. Zoin hilabetetan da Egüberri?
- D. Non atzamaiten dira arrainak?
- E. Zonbat iraüten dü urte batek?
 - 1. Hogeitahamar egün.
 - 2. Abentüan.
 - 3. Eznea eta aragia.
 - 4. Ibaietan eta itsasoan.
 - 5. Negüan.
 - 6. Hirurehün eta hirurogeita bost egün.
 - 7. Belarra.
 - 8. Kola eta paperarekin
 - 9. Aragitegian.
 - 10. Harriz, zimentüz eta zurez.

A	B	C	D	E

Izena:.....

COMPRENDRE	Socle Commun, 2^{ème} palier, Compétence 1 : Comprendre des mots nouveaux et les utiliser à bon escient.
	CECRL, Niveau A 2 : Comprendre des expressions et un vocabulaire très fréquents.
	Programmes 2008 : Utiliser des synonymes et des mots de sens contraire dans les activités d'expression orale et écrite.
IDATZIZKO HIZKUNTZA ULERTÜ	9- Sinonimoak eta kontrakoak /5
Ariketaren erabil moldea	Haur multzoa
Edükina	<p>Sinonimoen eta kontrakoentzako taula osatü behar dute:</p> <p>Gaixto – zintzo Hertsi – zabal Alai – pozik Oker – züzen Fite – baratz Zahar – adintsü Lagünagarri – trabagarri Polit – eder Irrigarri – triste Lodi – pottolo</p>
Agindua	Ikasleek irakurten dute. Ondotik erakasleak berriz irakurten dute. “Sinonimoen eta kontrakoentzako taula osatü behar dute kürütxe bat emanez.”
Iraupena	5 minuta

9 - Sinonimoen eta kontrakoentzako taula osatü behar dute kürütxe bat emanez.

		Erranahi bardintsüa	Erranahi kontrakoa
Adibidez:	Güti – amini bat	X	
	Hotz – bero		X
Gaixto – zintzo			
Hertsi – zabal			
Alai – pozik			
Oker – züzen			
Fite – baratz			
Zahar – adintsü			
Lagünagarri – trabagarri			
Polit – eder			
Irrigarri – triste			
Lodi - pottolo			

Izena:.....

COMPRENDRE	Socle Commun, 2^{ème} palier, Compétence 1 : Lire avec aisance (à haute voix, silencieusement) un texte. Lire seul et comprendre un énoncé une consigne. Dégager le thème d'un texte. Utiliser ses connaissances pour réfléchir sur un texte.
	CECRL, Niveau A 2 : Lire et comprendre des textes courts et très simples. Trouver une information particulière prévisible dans des documents courants.
	Programmes 2008 : Repérer dans un texte des informations explicites. S'appuyer sur les mots de liaison et les expressions qui marquent les relations logiques pour comprendre avec précision l'enchaînement d'une action ou d'un raisonnement. Repérer dans un texte des informations explicites.
	IDATZIKO HIZKUNTZA ULERTÜ
	10- Testuaren zatiak ordenean ezarri
	/10
Ariketaren erabil moldea	Haur multzoa
Edükina	Testu bat zatitürk eta zatiak nahasirik. Ikasleek berriz ordenatü behar dütüe. Testua: Ene eskola berria (Testu zatiak Xirixta 34.zkitik, 1995eko Iraila, hartürik izan dira, Elsa Devernois testutik ützulia).
Agindua	Ikasleek irakurten düe. Erakasleak ez dü irakurten. “Zatiak ordena etzazü, ixtorioaren kontatzeko.”
Züzenketa	4 – 6 – 3 – 2 – 1 – 5 (2,5 püntü arrapostü züzen bakoitz)
Iraüpena	5 minüta

10- Ixtorioaren kontatzeko, zatiak ordena etzazü zonbakiak ezarriz.


	Hara, heben da eskola. Ama baratx badoa... Sargian, haur eta aitetama hanitx dago. Orro eta nigarrak entzüten dira xoko güietan...
6	Ama joaiten da. Leihotik hürrüntzen ikusten düt. Berehala, ünürria bezain txipi izanen da.
	Amak esküa hartzen deit. Zoin laster badabilen! -Erna zite. Eskolako lehen egünean, ez düzü berant heltü behar. Oropilo handi bat badüt sabelean. Ebilteko trabatzen naü.
	Askaria ezin düt gaintitü. Amak maite düdan güzia prestatü deit. Ata “Corn Flakes”-ak züntzurrean baratzen zaitzat, ez aitzin, ez gibel.
1	Goiz hontan, amak pott goxo bat ematen deit: -Iratzar zite, maitea, egünkoa egün berezia düzü! Badakit, bai, eskola hasten dela, zer uste dü amak?
	- Horra maitea. Joan behar dit, dio amak... Pott busti elibat ematen deit. Nik uste, hura ere nigarrez ari da

Testua: Nire eskola berria (Testu zatiak Xirixta 34.zkitik, 1995eko Iraila, hartak izan dira, Elsa Devernois testutik itzulia)

Izena:.....

COMPRENDRE	Socle Commun, 2^{ème} palier, Compétence 1 : Lire avec aisance (à haute voix, silencieusement) un texte. Lire seul et comprendre un énoncé une consigne. Dégager le thème d'un texte. Utiliser ses connaissances pour réfléchir sur un texte.
	CECRL, Niveau A 2 : Lire et comprendre des textes courts et très simples.
	Programmes 2008 : Repérer dans un texte des informations explicites.
IDATZIZKO HIZKUNTZA ULERTÜ	11- Irudi zekuentzialen testu egokia häutatu /5
Ariketaren erabil moldea	Haur multzoa
Edükina	<p>Irudi zekuentzialak (neskatila eta ostoak) eta irudier lotürik bost deskribapen. Ikasleek deskribapenetan irudia atzaman behar düe.</p> <p><i>Amaia eskolatik ützültzen da. Ohartzen da osto hanitx badela lurrean. Zaküa etxearen barnean ützi eta, sagarra jaten dü. Gero, arrestelüarekin ostoak biltzen düü.</i></p> <p><i>Amaia eskolatik ützültzen da. Ohartzen da lili hanitx badela lurrean. Zaküa etxearen barnean ützi eta, arrestiri-askaria jaten dü. Gero, arrestelüarekin liliak biltzen düü.</i></p> <p><i>Amaia eskolatik ützültzen da. Ohartzen da osto hanitx badela lurrean. Zaküa etxearen barnean ützi eta, arrestiri-askariaren jateko eskeleretan jarten da.</i></p> <p><i>Amaia eskolatik ützültzen da. Ohartzen da osto hanitx badela lurrean. Zaküa etxearen barnean ützi eta, arrestiri-askaria jaten dü. Gero, arrestelüarekin ostoetan süa emaiten dü.</i></p> <p><i>Amaia eskolatik ützültzen da. Ohartzen da osto hanitx badela lurrean. Zaküa etxearen barnean ützi eta, arrestiri-askaria jaten dü. Gero, arrestelüarekin ostoak biltzen düü.</i></p>
Agindua	Ikasleek irakurten düe. Erakasleak ez dü irakurten. <i>Deskribapen horietan, zoin da züzena?</i>
Iraüpena	5 minüta

11- Deskribapen horietan, zoin da züzena?



	Amaia eskolatik ützültzen da. Ohartzen da osto hanitx badela lurrean. Zaküa etxearen barnean ützi eta sagarra jaten dü. Gero, arrestelüarekin ostoak biltzen düdü.
	Amaia eskolatik ützültzen da. Ohartzen da lili hanitx badela lurrean. Zaküa etxearen barnean ützi eta arrestiri-askaria jaten dü. Gero, arrestelüarekin liliak biltzen düdü.
	Amaia eskolatik ützültzen da. Ohartzen da osto hanitx badela lurrean. Zaküa etxearen barnean ützi eta arrestiri-askariaren jateko eskeleretan jarten da
	Amaia eskolatik ützültzen da. Ohartzen da osto hanitx badela lurrean. Zaküa etxearen barnean ützi eta arrestiri-askaria jaten dü. Gero, arrestelüarekin ostoetan süa emaiten dü.
	Amaia eskolatik ützültzen da. Ohartzen da osto hanitx badela lurrean. Zaküa etxearen barnean ützi eta arrestiri-askaria jaten dü. Gero, arrestelüarekin ostoak biltzen düdü.

Izena:.....

ECRIRE	Socle Commun, 2^{ème} palier, Compétence 1 : S'exprimer à l'oral comme à l'écrit dans un vocabulaire approprié et précis. Rédiger un texte d'une dizaine de ligne en utilisant ses connaissances en vocabulaire et en grammaire. Orthographier correctement un texte simple de dix lignes - lors de sa rédaction ou de sa dictée - en se référant aux règles connues d'orthographe et de grammaire ainsi qu'à la connaissance du vocabulaire.
	CECRL, Niveau A 2 : Ecrire des notes et des messages simples et courts.
	Programmes 2008 : Rédiger différents types de texte d'au moins deux paragraphes en veillant à leur cohérence, en évitant les répétitions, et en respectant les contraintes syntaxiques et orthographiques ainsi que la ponctuation.
	IDATZIZKO HIZKUNTZA EKOITZI 12- Ixtorioa idatzi /30
Ariketaren erabil moldea	Haur multzoa
Edükina	Irudi bat, testuaren asmatzeko
Agindua	Ikasleek irakurten düe. Ondotik erakasleak berriz irakurten dü. “Irudi horri ontsa sogin ezozü. Ixtorio baten zati bat erakusten dü. Ixtorio osoa idatz ezazü zer agitü den eta zer agitüko den irudikatüz. Ortografiari, xahütarzünari,(notatzeko kriterioak orroitarazi ikasleer) kasü egizüe! Hiztegia ez da erabilten ahal.”
Iraüpena	30 minüta.

12- Irudi horri ontsa sogin ezozü. Ixtorio baten zati bat erakusten dü.
Ixtorio osoa idatz ezazü zer agitü den, zer agitzen den eta zer agitüko den irudikatüz (hamar bat lerrotan). Zakar bat egizü lehenik.

Izena:.....



Ecrire	Socle Commun, 2^{ème} palier, Compétence 1 : Orthographier correctement un texte simple de dix lignes - lors de sa rédaction ou de sa dictée - en se référant aux règles connues d'orthographe et de grammaire ainsi qu'à la connaissance du vocabulaire.
	CECRL, Niveau A 2 : Ecrire des notes et des messages simples et courts.
	Programmes 2008 : Ecrire sans erreur sous la dictée un texte d'au moins dix lignes en mobilisant les connaissances acquises.
	IDATZIZKO HIZKUNTZA EKOITZI 13- Ortografia /10
Ariketaren erabil moldea	Haur multzoa
Edükina	Esaldi bat diktatü (20 hitz orotara).
Agindua	Erakasleak erraiten dü: “Esaldi bat erranen düt eta idatzi behar düzüe.” Aldi bat irakurten dü erakasleak. Diktaketa hasten da ondotik. Ürrentzean, berriz irakurten dü osoki.
Iraüpena	10 minüta

Testua: Ostirale hontan amani Garaziko merkatüalat joan da. Sagarrak erosi nahi dütü bena biziki kario beitira saskia hütsik ützüliko da etxerat.

Ecrire	Socle Commun, 2^{ème} palier, Compétence 1 : Utiliser ses connaissances pour réfléchir sur un texte (mieux le comprendre ou mieux l'écrire). Orthographier correctement un texte simple de dix lignes - lors de sa rédaction ou de sa dictée - en se référant aux règles connues d'orthographe et de grammaire ainsi qu'à la connaissance du vocabulaire.
	CECRL, Niveau A 2 : Ecrire des notes et des messages simples et courts.
	Programmes 2008 : Annexe 2 des Programmes de Langues Régionales (Basque) : La syntaxe, Les déclinaisons, Le verbe.
	IDATZIZKO HIZKUNTZA EKOITZI 14- Gramatika: Erakusleak /Posesiboak /10
Ariketaren erabil moldea	Haur multzoa
Edükina	Ariketa xilodüna.
Agindua	Ikasleek irakurten düe. Ondotik erakasleak berriz irakurten dü. “Ützülenak osa etzazzü.”
Notatzeko kriterioa	Ortografia züzena bera honhartürük da
Iraüpena	8 minüta

14- Erakusleak /Posesiboak (/ 10)

Ützülenak osa etzazzü:

Ce chien s'appelle Pattu. Txakur..... Pattu deitzen da.

Ces enfants sont sages. Haurperestüak dira.

Cette pendule est neuve. Ordulari berri da.

Pour se promener, papa a pris son bâton. Paseatzeko, aitakmakila hartü dü.

Mon chien s'appelle Pattu. txakur Pattu deitzen da.

Ta maison est grande. etxe..... handi da.

Nos outils sont propres. tresna.... xahü dira.

Le livre d'Amaia est blanc. xuri da.

La maman de Xabi est venue à l'école. eskolalat jin da.

Ce livre est à moi. Liburu hau da.

ECRIRE	Socle Commun, 2^{ème} palier, Compétence 1 : Utiliser ses connaissances pour réfléchir sur un texte (mieux le comprendre ou mieux l'écrire). Orthographier correctement un texte simple de dix lignes - lors de sa rédaction ou de sa dictée - en se référant aux règles connues d'orthographe et de grammaire ainsi qu'à la connaissance du vocabulaire.
	CECRL, Niveau A 2 : Ecrire des notes et des messages simples et courts.
	Programmes 2008 : Annexe 2 des Programmes de Langues Régionales (Basque) : La syntaxe, Les déclinaisons, Le verbe.
	IDATZIKO HIZKUNTZA EKOITZI 15- Gramatika: Aditza /15
Ariketaren erabil moldea	Haur multzoa
Edükina	Ariketa xilodüna.
Agindua	Ikasleek irakurten düe. Ondotik erakasleak berriz irakurten dü. “ Xiloak beta etzazü.”
Iraüpena	10 minüta

15- Aditza (/ 15)

Xiloak beta etzazü:

- Nik libürüa zaküan sartü (/1)
- Mikel hoinez sartzen etxerat. (/1)
- (Gatü) lo dira. (/1)
- (Potiko) jaten ari da. (/1)
- Peiori kirola gustatzen (/1)
- Nik zü lagüntüko (/1)
- Nik Amaiari goxoki bat eman (/1)
- Egün oroz, zazpietan (jeiki) niz. (/1)
- Egün oroz, etxeko lana (egin) düt. (/1)
- Txipi nintzalarik, amarekin eskolalat joaiten (/1)
- Txipi nintzalarik, ttuttua edaten (/1)
- Bihar, gü bortüzale (joan) gira. (/1)
- Bihar, neskatilik libürü hori (irakurri) dü (/1)
- Haurrek goxokiak jan (/1)
- Otsoak mendian bizi (/1)

ECRIRE	Socle Commun, 2^{ème} palier, Compétence 1 : Utiliser ses connaissances pour réfléchir sur un texte (mieux le comprendre ou mieux l'écrire). Orthographier correctement un texte simple de dix lignes – lors de sa rédaction ou de sa dictée – en se référant aux règles connues d'orthographe et de grammaire ainsi qu'à la connaissance du vocabulaire.
	CECRL, Niveau A 2 : Ecrire des notes et des messages simples et courts.
	Programmes 2008 : Annexe 2 des Programmes de Langues Régionales (Basque) : La syntaxe, Les déclinaisons, Le verbe.
	IDATZIKO HIZKUNTZA EKOITZI 16- Gramatika: Deklinabidea /10
Ariketaren erabil moldea	Haur multzoa
Edükina	Ariketa xilodüna.
Agindua	Ikasleek irakurten düe. Ondotik erakasleak berriz irakurten dü. “ Xiloak beta etzazü..”
Iraüpena	10 minüta

16- Deklinabidea (/10)

Non bizi da hartzia? Hartzia (bortü) bizi da. (1)
 Nora(t) joan zinen atzo? Ni atzo (Hendaia)..... joan nintzan. (1)
 Nontik jin dira lagünak ? Lagunak (kanpo)..... jin dira (1)
 Norentako erosi dü amak goxokia? Amak goxokia (ni)..... erosi dü (1)
 Norekin joaiten zira eskolalat()? (Anaia)..... joaiten niz eskolala(t) (1)
 Nori erran deiozu erori nizala? (Zure aita)..... erran deiot. (1)
 Norena da bizikleta gorria? Bizikleta gorria (Pantxo)..... da (1)
 Nork hartü dü ene libürüa? Uste düt (gizon bat)..... hartü düala (1)
 Nonko dira potiko hauek ? Potiko hauek (Hazparne)..... dira.(1)
 Nor ikusi düzü igaraiten? Gure (erakasle).....igaraiten ikusi düüt (1)

ECRIRE	Socle Commun, 2^{ème} palier, Compétence 1 : Utiliser ses connaissances pour réfléchir sur un texte (mieux le comprendre ou mieux l'écrire). Orthographier correctement un texte simple de dix lignes - lors de sa rédaction ou de sa dictée - en se référant aux règles connues d'orthographe et de grammaire ainsi qu'à la connaissance du vocabulaire.
	CECRL, Niveau A 2 : Ecrire des notes et des messages simples et courts.
	Programmes 2008 : Annexe 2 des Programmes de Langues Régionales (Basque) : La syntaxe, Les déclinaisons, Le verbe.
IDATZIKO HIZKUNTZA EKOITZI	17- Gramatika: Joskera /15
Ariketaren erabil moldea	Haur multzoa
Edükina	Ariketa xilodüna.
Agindua	Ikasleek irakurten düe. Ondotik erakasleak berriz irakurten dü. “Erranaldi horik ützül etzazü.”
Nota	15 minüta

17- Joskera (/15)

Celui-ci n'est pas cher:(0,5)
Les chats sont dehors :(1)
Les vaches mangent l'herbe :(1)
Le petit garçon a pris le ballon rouge :
(2)
 Je sais **que** papa va venir :(1)
Les fleurs que tu as achetées sont belles :
(2,5)
Quand je me lève, je suis content :
(2)
Hier, je n'ai pas vu ma mère :(1)
Où as-tu mis mes crayons ?(1)
Que cette maison est belle !(1)
 Je reste à la maison **parce que** je suis malade
(2)

Notatzeko kriterioak : erranaldi osoa züzen = nota osoa, larriz dena bera züzen = notaren erdia. Bi perpaus direlarik, bakoitzak püntü 1 balio dü.

13- Ortografia (/10)

.....
.....
.....
.....
.....

14- Erakusleak – Posesiboak (/10)

Ützülpenak osa itzazü:

Ce chien s'appelle Pattu. Txakür..... Pattu deitzen da.

Ces enfants sont sages. Haurperestüak dira.

Cette pendule est neuve. Ordulari berri da.

Pour se promener, papa a pris **son** bâton. Paseatzeko, aitakmakila hartü dü.

Mon chien s'appelle Pattu.txakür Pattu deitzen da.

Ta maison est grande. etxe..... handi da.

Nos outils sont propres. tresna.... xahü dira.

Le livre d'Amaia est blanc. xuri da.

La maman de Paul est venue à l'école. eskolalat jin da.

Ce livre est à **moi**. Libürü hau da.

Izena:

15- Aditza (/ 15)

Xiloak beta etzazü:

Nik libürüa zaküan sartü (/1)

Mikel hoinez sartzen etxerat. (/1)

(Gatü) lo dira. (/1)

(Potiko) jaten ari da. (/1)

Peiori kirola gustatzen (/1)

Nik zü lagüntüko (/1)

Nik Amaiari goxoki bat eman (/1)

Egün oroz, zazpietan (jeiki) niz. (/1)

Egün oroz, etxeko lana (egin) düt. (/1)

Txipi nintzalarik, amarekin eskolalat joaiten(/1)

Txipi nintzalarik, ttuttua edaten (/1)

Bihar, gü bortüalat (joan) gira. (/1)

Bihar, neskatilik libürü hori (irakurri)dü (/1)

Haurrek goxokiak jan (/1)

Otsoak mendian bizi (/1)

Izena:.....

16- Deklinabidea (/10)

- Non bizi da hartz? Hartz (bortü) bizi da. (1)
- Nora(t) joan zinen atzo? Ni atzo (Hendaia)..... joan nintzan. (1)
- Nontik jin dira lagünak ? Lagünak (kanpo)..... jin dira (1)
- Norentako erosi dü amak goxokia? Amak goxokia (ni)..... erosi dü (1)
- Norekin joaiten zira eskolalat()? (Anaia)..... joaiten niz eskolala(t) (1)
- Nori erran deiozu erori nizala? (Zure aita)..... erran deiot. (1)
- Norena da bizikleta gorria? Bizikleta gorria (Pantxo)..... da (1)
- Nork hartü dü ene libürüa? Uste düt (gizon bat)..... hartü düala (1)
- Nonko dira potiko hauek ? Potiko hauek (Hazparne)..... dira.(1)
- Nor ikusi düzü igaraiten? Gure (erakasle).....igaraiten ikusi düüt (1)

17- Joskera (/15)

- Celui-ci** n'est pas cher:(0,5)
- Les chats** sont dehors :.....(1)
- Les vaches** mangent l'herbe :.....(1)
- Le petit garçon** a pris **le ballon rouge** :.....
.....(2)
- Je sais **que** papa va venir :.....(1)
- Les fleurs que** tu as achetées sont belles :.....
.....(2,5)
- Quand** je me lève, je suis content :.....
.....(2)
- Hier, **je n'ai pas vu ma mère** :.....(1)
- Où as-tu mis mes crayons ?.....(1)
- Que** cette maison est belle !(1)
- Je reste à la maison **parce que** je suis malade
-(2)

Izena:.....